



ESPARTZA
Espartza

ESPARTZA (ZARAITZU)

Dionisia Garate, etxetik bordara lanean, eta gizonak Erribera aldera

...Dionisia...

...zenbat urte dituzu?

...laurogeitaborz.

– Eta hori aunitz edo guti da?

– Anitz, anitz da hori, anitz, anitz urte... ta ze behar dauzut erran?

– Nik preguntatuko dautzut, ta lehenagoko bizimodua, oihanean lanean edo... beti oihanean lanean?

– Bai, oihaneala bai, faten gintzan, oihaneala.

– Oinez?

– Bai, bai, zangoen gañean, ez ginuen deus ere fateko, baizik ere zangoak, oihaneala, lan egitra kan, behiekin, beste lanik ez ginuen, enuen egiten, baizik ere behiak segi, oihanean, eun guziko, askaria hartu goizian, artseal'artio faten gintzan oihaneala behiekin, ez gintzan xausten arts'artio, eun guzia oihanean, egiten bazuen euri, euri, egiten bazuen elur, elur, kan bar zen egon.

– Denpra gaixtoarekin ere?

– Bai, bai, bai, halik eta neguan sartu artio denbra gaixtoan, egun oro faten gintzan oihaneala behiekin.

– Eta han bordala edo...

– Keen ² bai bordala, bordala ³. Ta bordala faten gintzan astelenean, eta ez gintzan xausten halik eta larunbateala artio, aste guzia kan bordan, behiekin, ermaten ginuen ya astelenean, erkaituak erraten baizen orduan, erkaituak, eta aste guzian kan, larunbatean xauntsi, igandea igare etxen, astelenean nik ogiak egin bihar, ogiak egin eta oaiñik artsian mandoan eseri ogiak eta fan bordala, eta banuen bi oron bide bordala fateko, hobeengan faten nintzan keendik ilunian e, eta bi oron bide, eh!, kanis (?) egoten zen aita, ta

(2) Aezkera, zaraitziera eta erronkarian, erakusleak, izenordainak eta adberbio batzuk hitz hasieran **g-** eta **k-** kontsonante herskarietz hasten dira.

(3) Adlatiboa **-la** da Zaraitzun.

ama, eta nik, lenbiziko bi semeak ere bai, kan eun guzia, aste guzia kan, geldi-geldiak, baia ni ebiltzen nintzan goiti ta apal errekaitu bila.

– Erran duzu ogia egiten zinuela igandetan?, eta nola egiten zinuen?

– «No, no», igandean ez, astelenean, astelenean egiten nuen ogiak, zortzi oro, zortzi oro bihar nuen nik ogiak egin.

– Eta nola egiten ziren ogiak?

– Etxen, baginuen labea, baginuen gauza guziak, eta ogiak egin ta, bai, bai, artsean ogiekin bordala.

– Eta kilo aunitz edo guti, ogi?

– Ah, pues, egiten nituen hamabi hamahirur ogi, eta izaten zien, orduan etzen kilorik baizik ere librak, bedratzi eta hamar libra ogi bakotxa, ta egiten nituen, pues, hamabi, hamahirutra etzen heltzen, hamabitan. Egiten nuen orea, eta gero kala bueltaka bueltaka sartzen nuen ogia labean, ta bihar zen egon hirur orones, ogiak labean, (---) labetik elki zaku batiala, ta zakuan ogiekin bordala.

– Eta labea zaharra, harrizkoa edo, zer zen, harriakin egina zen labea?

– Bai, bai, bai.

– Orai ez da ikusten?

– Ez, ez, egiten du ya urte anitz eh?, ene kontu konek, bai, bai urte aniiz.

– Eta zamarixkoan iganik bordala?

– Ah, bai, zamariarekin, zamari ez, mando ginuen, ene denbran beti izan ginuen mando, behiak eta ahuntzak eta ardi eta guzietarik izan ginuen, guzietarik.

– Eta aita faten zen Erribrara ardi saldoekin?

– Bai, bai.

– Zu fan zra ere Erribrara?

– Ez, ni Erribrara ez nintzan fan batere, kortik libratu nintzan, Erribrara fan bage.

– Eta aitak zer erraten zuen?

– Pues deuse, aitak urte gutis izan ze ¹⁰, izan ze ene senarra, faten zena artzai, aita ez, aita ya zen delikatu, beti zegoen eri, delikatu, baia ene senarra faten zen sei edo zazpi hilabeterendako Erribrara, eta ni kemen berzeekin, lenbiziko urteetan bi semerekin baratzen nintzan, ta aita t'ama. Eta senarra Erribrara.

(10) Euskalki honetan lehen aldiko aditzetan -n markarik gabeko formak ageri zaizkigu, non zehargalderazkoak edo erlatibozkoak ez diren.

- *Eta non barna faten zren Erribrara?*
- *Oh, urrun, urrun faten ze, bai, bai, anitx urrun.*
- *Eta zenbat ardi saldorekin, zenbat ardirekin?*
- *Ez, pues, eztut erranen zemat, zer saldo ermaten zuen, lauregun edo kala, edo borzegun edo kala, ermaten zuen.*
- *Artzai?*
- *Artzai, artzai, eta erraten zuena berak, eta kueba batean lo egiten, eta behar baldin bazien xan, fan behar zien herri batiala gabaz, egunaz zaldiekin, eta artsian errekeituen bila faten zen herriala, ta gandik faten zen gero kueba batiala, kueban erraten zuen, kueban, hobeengan euri egiten zuelarik ituxurak gaiñala.*
- *Orduan lo egin bage?*
- *Ah, lo egiten zien egunaz, iguzkiarekin, artsian ez, igaretzen zen lorik in bage.*
- *Orduan sei zazpi hilabetendako.*
- *Bai, bai, bai, faten ze.*
- *Baina, negua pasatzera?*
- *Bai, bai, negu guzia kan, halik eta martxoaren azkenial'artio etzen xiten.*
- *Eta dirua atratzen zuen?*
- *Bah, hamar duroendako faten zen hilabetian, hamar duro irabazten zue, ez yago eta ez gutiago, hamar duro.*
- *Eta diru korrekin gauza anitz erosten ahal zen edo guti?*
- *Ah, bai, bai, baratzen gintzan ongi, bai, bai. Orduan baitzauden gauzak kariek kala, erosteko, ez orai bezala, ez.*
- *Orai kario?*
- *Orduan guti eta orai sobra.*
- *Orduan zuk egin duzu lana oihanean, bordan, eta etxean ere, etxeke lanak?*
- *Bai, guziak egiten nuen, bordatik xauntsi eta erkaituak, ala!, bila tiendala, ardo bila, guzietra faten nintzan, eta gero ala!, mandoa kargatu ta bordala, zonbat biaje dauket eginik, bai, ze bizia, ez gaude igual ez, orduan ta orai, ez gaude igual.*
- *Eta oraiko gazteak hobe bizi dra?*
- *Bah, sobra ongi oraikoak, sobra ongi.*
- *Eta, zera, lehen nork egiten zuen lan handiago, gizonak edo emakumeak?*
- *Emaztiek, emaztiek egiten ginuen lan yago, nik udan xiten zelarik gariak*

egitatzeko, nik egitatzen nuen gizonak biño yago, izan nuen maiña anitz egitatzeko.

– Orduan udan garia igitatu?

– Bai, bai, egitaz, egitaiaz.

– Eta gero gari horrekin zer egiten zen?

– Ah, pues, gari kura larrian, eultziak, eta egiten ginuen eultzia, pues, behiekin, bi behi xuntatu buztarriaz eta ala!, eultziala, gero faten gintzan bukatuz, bukatuz, «ala! bazterriala!», «ala!, erdiala, erdiala!», ta kala xardukitzen ginue.

– Eta eultzitu eta gero haizearekin edo...

– Bai, bai, bai, sardiaz haizatzen ginuen, eta garia palaz, agotza sardiaz ta garia palaz, zer moduak eh?, orduan, zer moduak! Eta orai ezta igual, ez, ez, orai ezta ez ogirik egiten ta deus ere, orai guziek eragutzen die ogia atariala. Ze behar die emazte kebek, ezkie ikasi ni bezala ez, ni bezala ez. Etxekoandre konek ezta ez ogirik egin, ya konen denbran etzen egiten ogirik, baia nik bai in ditut anitz.

– Eta irina nondik ekartzen zenuten?

– Baginuen errotara, ematen ginuen garia ta kan ehotzen ze, eta gero eragutzen ginuen zakuan irina etxera, ta irin kartaz egiten ginuen ogiak.

– Ogi ona?

– Ba, bai, bai, ogiak onik onik...

– Kuku bitarte, Natibitate, gabaren gaba, artzaia dantzari, ardia belari, argi, argi, mundu guziari. Etxe kontan laur ardi, laurek zortzi begarri, etxe kontan bai ardo, etxakin zomana, eraukizu kozu bana, xakiteko zomana, etxe kontako nagusi-etxeokoandriek izan zaela gaba on, abalili!

ESPARTZA (ZARAITZU)

Dionisia Garate, etxetik bordara lanean, eta gizonak Erribera aldera

...Dionisia...

...zenbat urte dituzu?

...laurogeitabortz.

– Eta hori aunitz edo guti da?

– Anitz, anitz da hori, anitz, anitz urte... eta zer behar dizut erran?

– Nik preguntatuko dizut, eta lehenagoko bizimodua, oihanean lanean edo... beti oihanean lanean?

– Bai, oihanera bai, joaten ginen, oihanera.

– Oinez?

– Bai, bai, zangoen gainean, ez genuen deus ere joateko, baizik ere zangoak, oihanera, lan egitera han, behiekin, beste lanik ez genuen, ez nuen egiten, baizik ere behiak segi, oihanean, egun guziko, askaria hartu goizean, arratsaldera arte joaten ginen oihanera behiekin, ez ginen jaisten arratsaldera arte, egun guzia oihanean, egiten bazuen euri, euri, egiten bazuen elur, elur ¹, han behar zen egon.

– Denbora gaiztoarekin ere?

– Bai, bai, bai, harik eta neguan sartu arte denbora gaiztoan, egun oro joaten ginen oihanera behiekin.

– Eta han bordara, edo.

– Hemen bai, bordara, bordara. Eta bordara joaten ginen astelehenean, eta ez ginen jaisten harik eta larunbatera arte, aste guzia han bordan, behiekin, eramaten genuen jada astelehenean, errekaituak ⁴ erraten baitzen orduan, errekaituak, eta aste guzian han, larunbatean jaitsi, igandea igare etxean, astelehenean nik ogiak egin behar, ogiak egin eta oraindik arratsean mandoan eseri ⁵ ogiak eta joan bordara, eta banuen bi oren bide bordara joateko, hoberenean joaten nintzen hemendik ilunean, eta bi oren bide, eh!, kanis (?) egoten zen aita, eta ama, eta nik, lehenbiziko bi semeak ere bai, han

(1) Ekialdeko euskalkietan, mendebaldekoetan ez bezala, sustantiboa mugagabez maiz erabiltzen dute.

(4) Jatekoak.

(5) Ezarri, jarri; paratu; ipini.

egun guzia, aste guzia han, geldi-geldiak ⁶, baina ni ibiltzen nintzen goiti eta apal ⁷ errekaitsu bila.

– Erran duzu ogia egiten zenuela igandeetan?, eta nola egiten zenuen?

– «No, no», igandean ez, astelehenean, astelehenean egiten nuen ogiak (sic), zortzi oro, zortzi oro behar nuen nik ogiak (sic) egin.

– Eta nola egiten ziren ogiak?

– Etxen, bagenuen labea, bagenuen gauza guziak (sic) eta ogiak egin eta, bai, bai, arratsean ogiekin bordara.

– Eta kilo aunitz edo guti, ogi?

– Ah, pues, egiten nituen hamabi hamahiru ogi, eta izaten ziren, orduan ez zen kilorik baizik ere librak, bederatzi eta hamar libra ogi bakoitzak, eta egiten nituen, pues, hamabi, hamahirutara ez zen heltzen, hamabitan (?). Egiten nuen orea, gero hala bueltaka, bueltaka, sartzen nuen ogia labean, eta behar zen egon hiru orenez, ogiak labean, (---) labetik elki ⁸ zaku batera, eta zakuan ogiekin bordara.

– Eta labea, zaharra, harrizkoa edo, zer zen, harriekin egina zen labea?

– Bai, bai, bai.

– Orain ez da ikusten?

– Ez, ez, egiten du jada urte anitz eh? ene kontu honek, bai, bai urte anitz.

– Eta zamarixkoan ⁹ iganik bordara?

– Ah, bai, zamariarekin, zamari ez, mando genuen, ene denboran beti izan genuen mando, behiak eta ahuntzak eta ardi eta guzietarik izan genuen, guzietarik.

– Eta aita joaten zen Erriberara ardi saldoekin?

– Bai, bai.

– Zu joan zara ere Erriberara?

– Ez, ni Erriberara ez nintzen joan batere, hortik libratu nintzen, Erriberara joan gabe.

– Eta aitak zer erraten zuen?

– Pues, deus ere ez, aita urte gutiz izan zen, izan zen ene senarra, joaten zena artzai, aita ez, aita jada zen delikatu, beti zegoen eri, delikatu, baina ene senarra joaten zen sei edo zazpi hilabeterako Erriberara, eta ni hemen bertzeekin, lehenbiziko urteetan bi semerekin baratzen ¹¹ nintzen, eta aita t'ama. Eta senarra Erriberan.

(6) Gainerako euskalkietan **-ik** atzizkia daramaten errepikaziozko zenbait adberbiok nafarreran nominatibo mugatzailea izaten dute.

(7) Goiti eta beheiti; gora eta behera.

(8) Atera; irten.

(9) Zaldiko; behoka.

(11) Gelditzen.

- Eta non barna joaten ziren Erriberara?
- Oh, urrun, urrun joaten zen, bai, bai, anitz urrun.
- Eta zenbat ardi saldorekin, zenbat ardirekin?
- Ez, pues, ez dut erranen zenbat, zer saldo eramaten zuen, laurehun edo hala, edo bortzehun edo hala, eramaten zuen.
- Artzai?
- Artzai, artzai, eta erraten zuena berak, eta koba batean lo egiten, eta behar baldin bazuten jan, joan behar zuten herriren batera gauaz, egunaz zaldiekin, eta arratsean errekaituen bila joaten zen herrira, eta handik joaten zen gero koba batera, koban erraten zuen, koban, hoberenean euri egiten zuelarik itaizurak gainera...
- Orduan lo egin gabe?
- Ah, lo egiten zuten egunaz, eguzkiarekin, arratsean ez, igaretzen ¹² zen lorik egin gabe.
- Orduan sei-zazpi hilabeterendako.
- Bai, bai, bai, joaten zen.
- Baina, negua pasatzera?
- Bai, bai, negu guzia han, harik eta martxoaren azkenera artio ez zen etorzen.
- Eta dirua ateratzen zuen?
- Bah, hamar durorendako joaten zen hilabetean, hamar duro irabazten zuen, ez gehiago ez gutiago, hamar duro.
- Eta diru horrekin gauza anitz erosten ahal zen edo guti?
- Ah, bai, bai, baratzen ginen ongi, bai, bai. Orduan bait zeuden gauzak haiek hala, erosteko, ez orain bezala, ez.
- Orain kario?
- Orduan guti eta orain sobera.
- Orduan zuk egin duzu lana oihanean, bordan, eta etxean ere, etxeko lanak?
- Bai, guziak egiten nuen (sic), bordatik jaitsi eta errekaituak, ala!, bila tiendara, ardo bila, guzietara joaten nintzen, eta gero ala!, mandoa kargatu eta bordara, zenbat biaje daukat eginik, bai, ze bizia, ez gaude igual ez, orduan eta orain, ez gaude igual.
- Eta oraiko gazteak hobeki bizi dira?
- Bah!, sobera ongi oraingoak, sobera ongi.
- Eta zera, lehen nork egiten zuen lan handiago, gizonak edo emakumeak?
- Emazteek, emazteek egiten genuen lan gehiago, nik, udan etortzen

(12) Igaro.

zelarik gariak igitatzeko, nik igitatzen nuen gizonek baino gehiago, izan nuen maina anitz igitatzeko.

– Orduan udan garia igitatu?

– Bai, bai, igitaiaz, igitaiaz.

– Eta gero gari horrekin zer egiten zen?

– Ah, pues, gari hura larrainean, eultziak, eta egiten genuen eultzia, pues, behiekin, bi behi juntatu uztarriaz eta ala!, eultziara, gero joaten ginen bukatuz, bukatuz, «ala!, bazterrera!», «ala!, erdira, erdira!», eta hala ihardukitzen genuen.

– Eta eultzitu eta gero haizearekin edo...

– Bai, bai, bai, sardeaz haizatzen genuen, eta garia palaz, agotza sardeaz eta garia palaz, zer moduak eh?, orduan, zer moduak! Eta orain ez da igual, ez, ez, orain ez da ez ogirik egiten eta deus ere, orain guziek eragutzen ¹³ dute ogia atarira. Zer behar dute emazte hauek, ez dute ikasi nik bezala ez. Etxekoandre honek ez du ez ogirik egin, jadanik honen denboran ez zen egiten ogirik, baina nik bai, egin ditut anitz.

– Eta irina nondik ekartzen zenuten?

– Baginuen errota, eramaten genuen garia eta han ehotzen zen, eta gero eragutzen genuen zakuan irina etxera, eta irin hartaz egiten genuen (sic) ogiak.

– Ogi ona?

– Ba, bai, bai, ogiak onik, onik...

– Kuku bitarte, Natibitate, gabaren gaba, artzaia dantzari, ardia belari, argi, argi, mundu guziari. Etxe honetan lau ardi, laurek zortzi belarri, etxe honetan bai ardo, ez jakin zenbana, eraukizu ¹⁴ kozu bana, jakiteko zenbana, etxe honetako nagusi-etxekoandreek izan dezatela gau on, abaiiii!

(13) Ekartzen.

(14) Ekar ezazu.